

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZAINZAILEAK, ALZHEIMERRAREN PAZIENTE EZKUTUAK

Gratu Amaierako Lana 2020-2021. Errebisio bibliografikoa.



Blanca Fernández Jiménez

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

Data: 2021eko maiatzaren 3a

Hitz kopurua: 5999

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| SARRERA | 3 |
| ESPARRUA ETA JUSTIFIKAZIOA | 4 |
| HELBURUA | 9 |
| METODOLOGIA | 10 |
| Diseinu mota..... | 10 |
| Bilaketa prozesua..... | 10 |
| Barneratze-irizpideak: | 10 |
| Kanporatze-irizpideak:..... | 11 |
| Artikuluen aukeraketa..... | 12 |
| Artikuluen analisisa | 12 |
| EMAITZAK ETA EZTABAIDA | 13 |
| Laginaren deskripzioa | 13 |
| Zaintzailearen gainkargari eragiten dioten faktoreen azterketa | 13 |
| Dementia faktoreak..... | 14 |
| Zaintzailearekin lotutako faktoreak..... | 16 |
| Testuinguruarekin lotutako faktoreak | 19 |
| MUGAK | 22 |
| ONDORIOAK | 23 |
| BIBLIOGRAFIA | 25 |
| ERANSKINAK | 30 |
| 1. ERANSKINA: Mini Examen Cognoscitivo (MMSE) | 30 |
| 2. ERANSKINA: Disability Assessment for dementia (DAD) | 31 |
| 3. ERANSKINA: Neuropsychiatric Inventory (NPI) | 33 |
| 4. ERANSKINA: Zarit Burden Inventory (ZBI) | 34 |
| 5. ERANSKINA: Kontzeptu-taula | 36 |
| 6. ERANSKINA: Bilaketa-etaulak | 38 |
| 7. ERANSKINA: Ikerketa kuantitatiboko azterketa kritikoa garatua | 48 |
| 8. ERANSKINA: Ikerketa kuantitatiboko azterketa kritikoa | 50 |
| 9. ERANSKINA: Fluxu-Diagrama | 53 |
| 10. ERANSKINA: Laburpen taula..... | 54 |
| 11. ERANSKINA: Zuhaitz-kategoriala..... | 64 |

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Alzheimerra neuroendekapenezko gaixotasun kronikoa da, gaixoaren kognizioan, funtzionalitatean, nortasunean eta jokabidean asaldurak sortzen dituenak eta honen dependentzia areagotzen duenak gaitzaren progresioarekin batera. Alzheimer gaixoak etxean zaindu ohi dira, haien senideak zaintzaile nagusietan bihurtuz. Zaintza zorrotza eta emozionalki konprometituta egoten da, egoera estresagarri eta kroniko bezala igarriz. Horren ondorioz, zaintzaile nagusiek gaitzaren deritzon estresarekin lotutako dimentsio anitzeko erantzuna sor dezakete, haien osasuna arriskuan jarriz. Erizainen aldetik ezinbestekoa da gaitzaren prebenitzea, zaintzaileen osasuna babestuz eta haien senidea zaintzeko gaitasuna mantenduz.

Helburua: Alzheimerra duten pazienteen zaintzaile familiarren gaitzari eragiten dioten faktoreak aztertzea.

Metodologia: Errebisio bibliografiko hau burutzeko 2010 eta 2020 urteen artean argitaratutako artikulak erabili ziren, ingelesez edo gazteleraz idatzita zeudenak. Hurrengo datu-baseak kontsultatu ziren: Medline, Cinhal, PsycInfo, Embase, Cochrane, Cuiden, WOS Fecyt, Science Direct eta Scopus. Bestalde, eskuzko bilaketak egin ziren, NICE eta RNAO praktika klinikoko gidetan eta *The Gerontologist*, *International Psychogeriatrics*, *Journal of Alzheimer's Disease* eta *Journal of Applied Gerontology* aldizkarietan bilaketak burutuz. Azkenik, lana idazteko 17 artikulak erabili ziren, diseinu kuantitatiboa zeukatenak. Horietako 10 artikulak diseinu korrelazionala zuten eta 7 kohorteak ziren.

Emaitzak eta eztabaida: Gaitzari eragiten zioten hiru faktore mota topatu ziren: demenzia faktoreak, zaintzailearekin lotutakoak eta testuinguru faktoreak. Horien artean demenzia faktoreak garrantzitsuenak izan ziren, eta hauen barnean asaldura psikologikoak, portaera asaldurak eta asaldura funtzionalak handitzeak gaitzaren esanguratsuki areagotu zuten. Lehenengo graduko senidea izatea, osasun mental pobrea eta gaixotasunarekiko jarrera negatiboak gaitzaren nabarmenki handitu zuten zaintzaileen faktoreak izan ziren. Testuinguru faktorei dagokienez, gaixoarekiko elkarbizitza, sostengu eta baliabide sozial urriak eta zaintze-denbora areagotzeak gaitzaren haztea eragin zuten. Aurretik aipatutako faktore esanguratsuen gain, gaitzari neurri txikiagoan eragin zioten bestelako faktoreak ere topatu ziren.

Ondorioak: Erizainen aldetik ezinbestekoa da gaitzaren eragina duten faktore hauek ezagutzea eta arriskuan dauden zaintzaileak identifikatzea, bereziki lehenengo mailako arretan balorazio soziofamiliarren burutzerakoan. Zaintzaileen beharrak aztertu ondoren orientazioa, ezagutzak, sostengua, eskura dauden baliabideak eta interbentzio pertsonalizatuak eskainiz, gaitzaren prebenituko da. Horrela, zaintzailearen eta gaixoaren bizi-kalitateak bermatuko dira. Etorkizuneko ikerketetan interesgarria izango litzateke gaitzaren baretzen duten faktoreen inguruan gehiago aztertzea, hauei buruz informazio gutxi topatu zen eta.

Hitz gakoak: "Alzheimer", "Alzheimer gaixotasuna", "zaintzailea", "gaitzari", "familia" eta "faktoreak".


ESPARRUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Zahartzea jaiotzetik aurrera hasten den prozesu atzeraezina da⁽¹⁾. Azken urteetan, munduko biztanleriaren zahartze prozesua hainbat faktoreengatik azkartu egin da, esaterako, medikuntza aurrerapenak, bizi itxaropenaren hazkundera eta bizi kalitatearen hobetzea^(2,3). Biztanleriaren zahartzeak pertsona adinduen kopurua areagotzea adierazten du, gainerako populazioarekin alderatuta. 1982an Vienan egindako Zahartzearen Munduko Batzarren arabera, adindua 60 urtetik aurrerako pertsona bezala definitu zen^(1,4). Adinduen proportzioaren hazkuntza azaltzerako orduan, ugalkortasunaren eta hilkortasunaren tasek jaisteak eta migrazioek eragina dute⁽¹⁾. Gaur egun, adinduen taldea 600 milioi pertsonen baino gehiagok osatzen dute eta 2050ean 2.000 milioi pertsona izango direla kalkulatu da^(1,4).

Biztanleriaren zahartzearen ondorioz, endekapenezko gaixotasunak eta gaixotasun kronikoak areagotu dira; horien artean bereziki, demenziak. Azken hauek garun funtzioaren narriadura eragiten dute, oroimena galduz, hizkuntzaren arazoiketa kaltetuz eta gizabanakoaren portaera aldatuz. 60 urtetik aurrera demenziak bost urtetan behin areagotzen direla kalkulatu da; eta 80 urte baino gehiagoko pertsonen %64-ak demenzia motaren bat garatzen dutela aitortu da, gaixotasuna antzematearen eta tratamendu eta laguntza-estrategiak zehaztearen garrantzia azpimarratuz^(3,5).

Demenzia desgaitasun eta heriotza jatorri gisa ezagutu da. Gaitzaren progresioagatik eta gaixoen zainketengatik baliabide sozial eta sanitario asko kontsumitzen dituen gaixotasuna da, osasun publikoko arazoa izanez^(2,6).

Demenzia guztien artean, %50-60-a Alzheimerrari dagokio, hori baita demenzia motarik ohikoena⁽⁵⁾. Alzheimerra neuroendekapenezko gaixotasun kronikoa da; bilakaera motela, aurrerakorra eta itzulezina duena, sintomak hasten direnetik 10-15 urtera bitarteko egoera begetatiborantz eboluzionatuz^(3,7). Lehenengo irudian ikus daitekeen bezala, kognizioaren hainbat arlotan (oroimenean, mintzamenen, funtzio exekutiboetan eta ikusmen espazialaren abilezian) buru-trebetasunen galera eragiteagatik eta jokoeran eta afekzioan istiluak sortzeagatik bereizten den gaixotasuna da^(7,8,9). Horren ondorioz, gaixoaren osotasun fisikoa, mentala eta soziala arriskuan jartzen da⁽⁷⁾.



1. Irudia. Alzheimerraren eragina garuneko lobuluaren arabera ⁽⁹⁾.

Mundu osoan zehar 26,6 milioi pertsonak Alzheimerra pairatzen dute, eta 2050-ean 100 milioi pertsona inguru izango direla kalkulatu da⁽⁸⁾. Espainian, Alzheimer gaixotasunaren prebalentzia %5,2 eta %16,3 artekoa da 60 urtetik gorako pertsonengan. 85 urtetik gorako gizon adinduengan prebalentzia %22-koa da, eta adin bereko emakumeengan berriz, %30-ekoa⁽¹⁰⁾.

Gaur egun ez dakigu zerk eragiten duen gaixotasuna, baina garun kaltea pazienteak zeinu eta sintomak aurkeztu baino 10-20 urte lehenago hasten dela frogatu da⁽⁹⁾. Alzheimerrean ematen diren garun aldaketak hurrengoak dira: plaka senilak eta endekapen neurofibrilarrezko neuronak agertzea. Bi hauen dentsitatea hazten den heinean, gero eta gehiago areagotuko da demenzia gradua. Garun aldaketa hauek gainontzeko biztanle adinduengan neurri batean agertzen diren arren, Alzheimer pazienteengan askoz gehiago aurkezten dira⁽¹¹⁾.

Alzheimer gaixotasuna bitan sailkatu daiteke sintomak agertzen diren adinaren arabera. Hasiera goiztiarrekoa (kasuen %4-a) 65 urte izan aurretik gaixotasuna garatzen denean ematen da; eta hasiera berantiarrekoa (kasuen %96-a), 65 urtetik aurrera hasten dena da, lan honetan garatuko dena. Aurretik aipatutako bi mota horiek beste bi azpimotatan banatu daitezke: esporadikoa, aurretik historia familiarra ez badago, eta familiarra, senideren batek gaixotasuna pairatu badu. Kasuen %10-ean gaixotasuna hereditarioa da, transmisio autosomiko gainartzailea izanez. Genetikaz gain, badaude beste arrisku faktore batzuk gaixotasuna pairatzeko, adibidez: denbora luzez hipertentsioa izatea, garuneko traumatismoaren aurrekariak izatea, homozisteina (gaixotasuna kronikoen agerpena sustatzen duen kimiko bat) maila altuak izatea, emakumea izatea (bizi-itxaropen handiagoa edukitzeagatik), hezkuntza maila baxua eta demenziaren edo Down sindromearen aurrekari familiarrak izatea^(11,12).

Alzheimerren diagnostikoa baztertzaila da, izan ere, diagnostiko zehatza gaixoa hil eta gero egindako autopsiarekin lortu daiteke soilik. Beraz, pazienteen diagnostikoaren ziurtasuna %85-ekoa da, eta hau egiteko froga psikologikoak eta irudi bidezkoak egiten dira, beste nahasmendu neurologikoak baztertuz. Gaur gaixotasunak sendabiderik ez izan arren, ikertzaileen arabera ezinbestekoa da diagnostiko goiztiarra burutzea tratamendu eta zainketa espezifikoekin lehenbailehen hasteko, ahal den heinean gaixotasunaren progresioa motelduz eta sintomak murriztuz^(9,12).

Alzheimer gaixotasunaren ezaugarri klinikoak hiru eremu handitan zentratzen dira: asaldura kognitiboak, asaldura funtzionalak eta azkenik, asaldura psikologikoak gehi jokabide asaldurak⁽⁹⁾. Azken eremu honen barnean, depresioa, aztoramena, haluzinazioak edo eldarnioak bezalako sintoma neuropsikiatrikoak barneratzen dira, gaixotasunaren bilakaeran zehar agertzen direnak eta pazienteak instituzionalizatzeko arrazoi nagusienetako bat izanez⁽¹³⁾.

Alzheimerra diagnostiko zehatzik ez izan arren, garrantzitsua da pazienteek aurkeztu ditzaketen alarma zeinu batzuk ezagutzea, adibidez: eguneroko bizitzako gaitasunei eragiten dieten memoria galerak, familia edo laneko betebeharrak egiteko zailtasunak, hizkuntza arazoak, desorientazioa (denboran eta espazioan), judizio pobrezia, arazoak pentsamendu abstraktuekin, gauzak leku desegokietan kokatzea, nortasun aldaera, aldaketak jokabidean eta umorean eta

ekimena galtzea^(9,12). Erizaintzaren aldetik, hainbat tresna erabili daitezke pazientearengan aurretik aipatutako zeinuak identifikatzen badira, gaixotasunaren susmoak baieztatzeko ala baztertzeko; edo behin pazienteek gaixotasuna pairatzen dutenean, arlo kliniko bakoitzaren narriadura maila ebaluatzeko⁽⁹⁾. Erizainek erabili ditzaketen tresnen artean, Mini-Mental State Examination (MMSE) froga dago (1. Eranskina), zein orientazioa, informazioaren erregistroa, arreta, kalkulua, oroimena eta hizkuntzaren erabilera ebaluatzen ditu, puntuazio baxuenak asaldura kognitibo handiagoak irudikatuz. Modu honetan neuroendekapenezko prozesu baten detekzio goiztiarren baheketa egitea eta haren eboluzio prozesua balioztatzea ahalbidetzen da^(9,14). Asaldura funtzionalei dagokionez, erizainek Disability Assessment for Dementia (DAD) eskala erabili dezakete (2. Eranskina), gaixoaren gaitasun funtzionalak neurtzen dituen, jatea, bainatzea edo janzte bezalako eguneroko jardura basikoak (ADL), medikazioa maneiatzea edo janaria prestatzea bezalako jardura instrumentalak (IADL) eta aisialdi jarduerak barneratuz. Azkenik, erizainek inbentario neuropsikiatrikoa (NPI) erabili dezakete (3. Eranskina), zeinek Alzheimerra duten pertsonengan normalean agertzen diren 12 sintoma psikologiko eta portaera sintomak neurtzeko balio du⁽¹⁴⁾.

Alzheimer gaixotasuna hiru fasetan bereizten da, bakoitzak bere ezaugarri klinikoak izanez (1. Taula): lehenengo mailakoa (arina), bigarren mailakoa (moderatu) eta hirugarren mailakoa (larria)^(5,9). Gaixotasunaren progresioa jarraia eta gizabanakoaren araberakoa da, beraz, einezkoa da zehaztea fase batetik bestera igarotzen den momentua⁽⁹⁾.

1. Taula: Alzheimerraren ezaugarri klinikoak fasearen arabera.

| | EZAUGARRI KLINIKOAK | DEFINIZIOA | FASE ARINA 2-5 URTE | FASE MODERATUA 2-10 URTE | FASE LARRIA edo TERMINALA |
|----------------------------|------------------------------|--|---|--|----------------------------------|
| EZAUGARRI KLINIKOAK | ASALDURA KOGNITIBOAK | Oroimenari, hizkuntzari, judizioari, plangintzari, arreta jartzeko trebetasunari eta pentsamenduaren beste prozesu batzuei eragiten dietenak dira. | Oroimenaren eta mintzamenaren nahasmenduak | Oroimenaren galera areagotzen da. | Muturreko agnosia. |
| | | | Arreta jartzeko gaitasunaren galera | Komunikazio, arrazoiketa eta koordinazio zailtasunak. | Afasia. |
| | | | Desorientazioa (espazioan eta denboran) | | Apraxia. |
| | | | | Espazio eta denboraren erreferentziaren galera. | |
| | ASALDURA FUNTZIONALAK | Eguneroko bizitzan beharrezkoak diren gaitasunen alterazioak dira, independentzia pixkanaka galtzea dakartenak. | Gaixoa autonomoa da, bakarrik gainbegiratze beharra dauka zeregin konplexuak burutzerakoan. | Eguneroko jarduerak egiteko beste pertsona batek gaixoa gainbegiratu behar du. | Mugiezintasun sindromea. |
| | | | | | Gaixoa guztiz mendekoa da. |

| | | | | | |
|--|--|--|--|---|--------------------------------------|
| | ASALDURA PSIKOLOGIKOAK EDO JOKABIDE ASALDURAK | Pertzepzioaren nahasmenduekin, pentsamenduaren edukiarekin, gogoaldatearekin eta portaerarekin lotutako sintoma eta zeinu multzoari deritzo. | Nortasunaren aldaketak: depresio eta agresibitate zeinuak. | Gaixoak etsaitasunezko jarrera hartzen du. | Apatia, pasibotasuna eta isiltasuna. |
| | | | | Nortasunaren aldaketak (agresibitatea batez ere) areagotzen dira. | |

Iturria: Egileak egindako taula.

Gaixotasunak aurrera ahala, eta bereziki fase moderatuan eta larrian, gaixoaren laguntza beharrak eguneroko jarduerak burutzeko gero eta handiagoak dira, dependentzia maila progresiboki areagotuz, zaintzaile baten gainbegiratzea eta zainketak behar izanez^(8,9,15). Zainketa horiek eskaintzeko bi modu daude; lehenengoa zaintzaile formalen esku dago, alegia, formakuntza jaso duten profesionalek eskaintzen dituztenak, adibidez egoitzetako medikuak eta erizainak. Bigarrena eta ohikoena zaintzaile informalen laguntza jasotzea da⁽⁸⁾. Zaintzaile informalak formakuntzarik gabe mendeko pertsoneri zainketak eskaintzen dieten senideak, lagunak, auzokideak eta ordainketa jasotzen ez duten pertsonak dira^(8,16). Kasu gehienetan (%80), Alzheimer pazienteak etxean zaintzen dira; bere familiakoak zaintzaileak bilakatuz, izan ere familia da zainketen iturri nagusia^(3,17,18). Dena den, familiaren barnean zaintzaile nagusi bat egon ohi da, eta hau da etxeko arretaren erantzukizuna bereganatzen duena, pazientearen gainbegiratu eta haren oinarritzko premiak asetuz^(16,19). Zaintzaile nagusiaren ezaugarrien eta zainteak sortu ditzakeen ondorio negatiboen arteko erlazioa hainbat ikerlanetan aztertu da, ohiko profila 45-55 urte bitarteko alaba izanez, unibertsitateko hezkuntza jaso ez duena, etxeko sostengu familiarra dena, partzialki lan egiten duena eta dementsia moderatua edo larria duen 65 urte baino gehiagoko pazientearekin bizi dena^(9,18).

Alzheimer gaixoak zaintzea egoera estresagarri eta kroniko bat bezala igarri da, eta zaintzailearen osasuna eta ongizatea arriskuan jartzearekin lotu da^(8,18). Izan ere, zaintza oso zorrotza izaten da, emozionalki konprometitu dago eta askotan zaintzaileek ez dute gainerako pertsonen laguntzarik gaixoa zaintzeko^(15,17). Zaintzak gizarte-isolamendua, bizitzarekiko asegabetasuna, bizi kalitate murriztua eta osasun fisikoaren txikiagotzea sor dezake, horren ondorioz depresioa, antsietatea eta estresa pairatzeko arriskua handituz. Alzheimerrekin duten pertsonen zaintzaileen %80-k estres maila altuak izaten dituzte, eta ia erdiek depresioa pairatzen dute⁽²⁾. Arazo psikologikoez gain, zaintzak arazo fisikoak sor ditzake, adibidez: buruko mina, hipertentsioa, urdail-ultzerak, bizkarreko lesioak eta artritisa⁽²⁰⁾. Hau guztiagatik zaintzaileak ezkutatuak paziente bezala kontuan hartu behar dira, haien osasuna kaltetu daiteke eta^(8,15).

Zaintzaile nagusiaren rola estres emozionalarekin, sozialarekin, fisikoarekin, psikologikoarekin eta ekonomikoarekin lotutako dimentsio anitzeko erantzuna sor dezake, gainkarga deritzona⁽¹⁵⁾. Honen barnean bi zama mota bereizi daitezke: gainkarga objektiboa, esaterako zaintzan emandako denbora kopurua eta gainkarga subjektiboa, garrantzitsuena, zaintzaileak egiten

dituen funtzioak sortarazten dioten sentimenduekin eta pertzepzio negatiboekin zerikusia daukana^(19,21). Zaintzaile nagusiaren gainkargaren determinatzaileak zaintzailearen eta gaixoaren arteko erlazioak eta dinamikak kontuan hartzen dituzte, gainzama areagotu ditzaketen faktore potentzial anitzetan arreta jarriz⁽²²⁾.

Zaintzailearen gainkarga maila ebaluatzeko tresnarik ezagunena eta erabiliena Zarit galdetegia da (ZBI laburdura daukana, ingelesez jasotzen duen izenaren arabera, Zarit Burden Interview), hainbat hizkuntzatan eta tamaina txikiagotan bertsionatu eta balidatu dena (4. Eranskina)⁽²³⁾. Emaizak osatzeko erabilitako artikuluetan zehar, Cronbach α -ren balidazio maila 0,85 eta 0,96-ren artekoa izan zen^(24,25,26,27). ZBI-ak mendeko pertsonen zaintzaileen gainkarga neurtzen du, dimentsio subjektiboa soilik ebaluatuz^(23,28). Zamaren puntuazioak zaintzailearen sintoma psikopatologikoekin, gogo aldaratearekin eta osasun fisikoarekin erlazionatuta daude, baita zaintzailearen eta gaixoaren arteko harremanaren kalitatearekin ere⁽⁹⁾. Ingelesezko jatorrizko bertsioak zaintzaileak batzuetan nola sentitzen diren deskribatzen duten 22 baieztapenen zerrendaz osatuta dago. Baieztapen bakoitza 0-tik 4-ra doan 5 puntuko Likert eskala batekin puntuatzen da. Puntuaketa orokorra 0 eta 88 artekoa da, puntuazio altuenak gainkarga maila handiagoak irudikatuz^(28, 29). Gaztelerazko bertsioaren puntuaketa ordea, 22 eta 110 artekoa da, Likert eskala 1-etik 5-era doa eta. Gaztelerazko bertsioak mozketak-puntuak ezartzen ditu ere, karga eza, moderatua eta larria ezberdinduz⁽²⁸⁾. Gainzama neurtzea ezinbestekoa da zaintzailearen maila fisikoan, kognitiboan, afektiboan eta psikosozialean dituen zuzeneko ondorioak ezagutzeko eta zaintzailearen eta gaixoaren maneia burutu ahal izateko, interbentzio estrategiak definituz⁽¹⁷⁾.

Alzheimerrak familiako zaintzaile nagusiarengan izan ditzakeen ondorioak ikusita, erizainek, bereziki lehen mailako arretakoak, gainkargaren prebentzioan zeregin garrantzitsua daukate^(9,30). Horretarako, premiazkoa da zaintzaileak gaixotasunaz dituen bizipenak ezagutzea, berarengan dituen ondorioak ulertzea, zaintzaileak dituen laguntza sistemak aztertzea eta haren beharrak eta kezkak identifikatzea, ebaluatze sistematiko bat burutu ahal izateko^(11,31,32). Balorazioa egin ondoren, erizainek zaintzaileei gainkargaren zeinu eta sintomak ezagutzen lagundu diezaiekete, modu horretan esku-hartze goiztiarrak diseinatu eta aplikatu^(30,33). Esku-hartze hauek gaixotasunaren hasieratik aplikatu behar dira, zaintzailearen eta gaixotasun fasearen araberrakoak izanez, hau da, pertsonalizatuak^(19,30). Erizainek diseinatu eta aplikatu beharreko interbentzioak zaintzaileari zaintzaren inguruko orientazioa, trebetasunak, ezagutzak eta sostengua ematera bideratuta egon behar dira, baita eskura dauden baliabideei buruz informatzera ere, esaterako, eguneko zentroak, zerbitzu sozialak eta Alzheimerraren elkarteak^(34,35). Interbentzio hauek aplikatzea zaintzailearen gainkarga fisikoa, psikologikoa eta soziala murrizten lagundu dezakete, gaixoa zaintzeko gaitasuna mantenduz eta bien bizi kalitatea hobetuz, gaixoarena zaintzailearen esku dago eta^(17,19,36).

HELBURUA

Alzheimerra duten pazienteen zaintzaile familiarren gainkargari eragiten dioten faktoreak aztertzea.

METODOLOGIA

Diseinu mota

Gradu amaierako lanaren helburuari erantzuteko literatura zientifikoaren errebisio kritikoa burutu da.

Bilaketa prozesua

Gradu amaierako lan honen informazioa eskuratzeko jarraian azaltzen den prozesua burutu da. Lanaren helburua zehaztu eta gero, lehenengo pausoa helburua hitz gakoetan deskonposatzea izan zen: Alzheimer gaixotasuna, zaintzailea, familia, ginkarga eta faktoreak. Ondoren, hitz hauen sinonimoak zerrendatu ziren, euskaratik ingelesera itzuli ziren (lengoaia naturala) eta amaitzeko, datu base bakoitzean ezarritako deskriptoreen zerrenda egin zen, lengoaia kontrolatura bihurtuz (5. Eranskina).

Hurrengo urratsa barneratze eta kanporatze irizpideak definitzea izan zen, hautagai ziren artikulua definitzeko eta bilaketa bibliografikoa zehatzagoa izateko asmoarekin.

Barneratze-irizpideak:

Argitalpen mota

Helburuari erantzuteko lehenengo eta bigarren mailako argitalpenak soilik onartu ziren. Gainera, testu osoko artikulua eskuratu zirenean, ebidentzia mailarik altuena lortzearen, inpaktu faktorea (IF) zuten aldizkarietan argitaratutako artikulua bakarrik hautatu ziren, horretarako JCR eta SJR tresnak erabiliz.

Ikerketa diseinua

Helburuari erantzuteko egokia zen diseinua kontuan hartu zen, topatutako bibliografia azterlan kuantitatiboetan oinarrituta egonez.

Argitalpen data

Informazioa zabala eta eguneratuta izateko, 2010 eta 2020 urteen bitartean argitaratutako artikulua erabili ziren.

Argitalpen hizkuntza

Lan honetan ingelesez eta gazteleraz idatzitako artikulua erabili ziren, bi hauek egileak menperatzen zituen hizkuntzak ziren eta.

Herrialdea

Informazio zabala lortzeko eta ezberdintasunak alderatzeko asmoz, herrialde eta kultura guztiak kontuan izan ziren.

Gaia

Dementzien barnean, hasiera berantiarra zuen Alzheimerren hiru faseei buruz hitz egiten zuten artikulua onartu ziren. Zaintzailearen ginkargari eragiten zioten faktoreak aztertzen zituzten artikulua barneratu ziren. Ginkarga neurtzeko Zarit galdetegia soilik erabiltzen zuten artikulua

onartu ziren, emaitzen homogeneotasuna bermatzeko eta alderaketa objektiboak egin ahal izateko.

Populazioa

Instituzionalizatuak ez zeuden pazienteak zaintzen zituzten zaintzaile informalak eta familiarrak barneratu ziren, adin nagusikoak (>18 urte). Artikulu batean, lagunak ziren zaintzaileak ere barneratu ziren, laginaren %4-a ziren eta.

Kanporatze-irizpideak:

Argitalpen mota

Fidagarriak ez ziren eta ebidentzia maila baxua zuten informazio iturriak baztertu ziren, hala nola literatura grisa, iritzi artikuluak eta editorialak.

Diseinu mota

Ikerketa lan kualitatiboak eta mistoak ez ziren onartu, helburuari erantzuteko diseinu aproposak ez zirelako.

Argitalpen data

Informazioa eguneratua izateko 2010 urtea baino lehen argitaratutako artikuluak baztertu ziren.

Hizkuntza

Menperatzen ez ziren hizkuntzetan idatzitako artikuluak baztertu ziren, hau da, ingelesez edo gaztelerez idatzita ez zeuden artikuluak kanporatu ziren.

Gaia

Gainerako dementziei edo Alzheimer goiztiarrari buruzko artikuluak baztertu ziren. Alzheimerraren fase arinari buruz soilik hitz egiten zuten artikuluak kanporatu ziren. Gainkarga neurtzeko Zarit galdetegia erabiltzen ez zituzten artikuluak ez ziren onartu.

Populazioa

Paziente instituzionalizatuen zaintzaile formalak eta ez familiarrak kanporatu ziren, baita 18 urte baino gutxiago zituztenak ere.

Eskuragarritasuna

Artikuluak eskuratzeko web orritan ordaintzea eskatzen zuten artikuluak baztertu ziren, baita full-test-an lortu ezin izan zirenak ere.

Behin kontzeptu nagusi guztien deskriptoreak eta barneratze eta kanporatze irizpideak zehaztuak izanda, bilaketa ekuazio ezberdinak osatu ziren AND operadore booleanoa erabiliz.

Ondoren, bilaketak egiteko datu-baseen aukeraketa burutu zen. Gradu amaierako lan honen informazioa eskuratzeko hurrengo datu baseak erabili ziren: Medline, Cinhal, PsycInfo, Embase, Cochrane, Cuiden, WOS Fecyt, Science Direct eta Scopus. Horrez gain, The Gerontologist, International Psychogeriatrics, Journal of Alzheimer´s Disease eta Journal of Applied Gerontology

aldizkari zientifikoak aztertu ziren. Azkenik, ebidentzian oinarritutako erizaintzara zuzendutako erakundeak kontsultatu ziren, kasu honetan NICE eta RNAO.

Datu-baseak aukeratu eta gero, bilaketa ekuazioak eta lortutako emaitzak bilaketa taulan erregistratu ziren (6. Eranskina). Bilaketa ekuazioetan filtroak erabili ziren, urteen tartea 2010-tik eta 2020-ra mugatzeko, ingelesez eta gazteleraz idatzita zeuden artikulua aurkitzeko eta testu osoak lortzeko asmoarekin.

Artikuluen aukeraketa

Artikuluen aukeraketa prozesua hiru fasetan burutu zen. Guztira 1029 artikulua topatu ziren. Lehenik eta behin, errepikatuak zeuden artikulua baztertu egin ziren (384). Lehenengo faseko artikuluen aukeraketa izenburua eta laburpena irakurrita egin zen (645). Gaiarekin bat ez zetozenak eta barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen ez zituztenak kanporatu ziren (602). Bigarren fasean, testu osoko artikulua irakurri ziren (43), helburutik desbideratzen zirenak eta kanporatze irizpideak betetzen zituztenak baztertuz (18). Atal honetan beste kanporatze-irizpide bat gehitu zen ebidentzia maila altuena lortzeko asmoarekin: inpaktu faktorea ez zuten aldizkarietan argitaratutako artikulua baztertuko ziren. Bestalde, aldizkari zientifikoetatik eskuzko bilaketaren bitartez lortutako bi artikulua gehitu ziren. 27 artikulua bakarrik igaro ziren hirugarren fasera. Artikuluen kalitatea ebaluatzeko eta datuen egokitasuna konprobatzeko, irakurketa kritikoa burutu zen (7. eta 8. Eranskinak). Modu honetan, artikuluen helburuak, diseinuak, populazioak, neurketak eta emaitzak xehetasunez aztertu ziren, 10 artikulua baztertuz. Gainerako 17 artikulua lanean barneratu ziren. Azkenik, fluxu-diagrama sortu zen, non artikuluen aukeraketaren prozesua islatuta agertzen den (9. Eranskina).

Artikuluen analisia

Azken 17 artikuluekin laburpen-taula bat osatu zen (10. Eranskina), alfabetikoki antolatu zena artikuluen izenburuen arabera. Honek artikuluen helburuaren, diseinuaren, laginaren, Zarit galdetegi motaren, emaitzen, egileen, urteen eta herrialdeen inguruko informazioa biltzen zituen, datuen analisia eta konparaketa errazago burutzeko.

Artikuluen analisiaren prozesua amaitzeko eta emaitzak sailkatu ahal izateko, artikuluetatik lortutako informazioa kategorietan sailkatu zen, zuhaitz kategorialaren bidez (11. Eranskina). Amaitzeko, emaitzak bi ataletan antolatu ziren: lehenik laginaren deskripzioa burutu zen eta ondoren, edukiak azaldu ziren. Azken honetan, hiru kategoria sortu ziren: demenzia faktoreak, zainzailearekin erlazionatutako faktoreak eta testuinguruarekin zerikusia zutenak.


EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Atal honetan errebisio bibliografikoa egiteko aukeratu ziren artikuluen ezaugarriak deskribatuko dira, zehazki diseinu motari, inpaktu faktoreari eta herrialdeari dagokienez.

Laginaren deskripzioa


Alzheimerra duten pazienteen zaintzaile familiarren beharrak ezagutzeko eta gainkarga prebenitzeko, azken hau eragiten duten faktoreei buruzko ikerketen emaitzak aztertu ziren. Horretarako 17 artikuluko ikertu ziren, diseinu kuantitatiboa zeukatenak. Horietatik 10 artikuluko diseinu analitiko korrelazionala zuten eta 7 kohortek ziren (6 aurrera begirakoak eta 1 atzera begirakoak).

17 artikuluko IF zuten aldizkarietan argitaratu ziren, gehienak lehenengo kuartilean egonez (%35).



1. Grafika: Artikuluak kuartilen arabera.

Hautatutako artikuluetatik sei Espainian, lau Frantzia, hiru Txinan, hiru Alemanian, bi Estatu Batuetan eta bakarria Hego Korean, Israelen, Brasilen eta Erresuma Batuan burutu ziren.



2. Grafika: Artikuluak herrialdearen arabera.

Zaintzailearen gainkargari eragiten dioten faktoreen azterketa

Aukeratutako artikuluko gehienek gainkargari eragiten zion faktore konkretu bat aztertzeko helburua izan arren, bestelako faktore batzuk ere identifikatu ziren. Bestalde, kontuan hartzekoa da artikuluko batzuetan herrialde bat baino gehiagoko biztanleriak barneratu zirela.

Artikuluak aztertu ondoren, hiru kategoriatan sailkatu ziren faktore motak kontuan hartuta: dementzia faktoreak, zaintzailearekin lotutakoak eta testuinguruarekin harremana zeukatenak.

Dementzia faktoreak

Kategoria honetan, dementzia faktoreak identifikatzen zituzten 12 artikulu aztertu dira. Gainontzeko kategoriekin alderatuz, faktore hauek gaitasunarekin erlazionaturako faktore esanguratsuenak izan ziren⁽²⁶⁾. Hurrengoak landuko dira: asaldura psikologikoak eta jokabide asaldurak, asaldura funtzionalak, asaldura kognitiboak eta gaitasunaren larritasun maila.

Asaldura psikologikoak eta jokabide asaldurak

Azpikategoria hau burutzeko 10 artikulu erabili ziren (%58,82-a), eta guztietan sintoma neuropsikiatrikoak NPI-ren bidez neurtu ziren^(14,25,29,37,38,39,40,41,42,43). Hamarretan NPI-ren eta ZBI-ren puntuaketa altuak haien artean esanguratsuki erlazionatu ziren, $p < 0.001$ izanda, gaitasun sintoma neuropsikiatriko gehiago aurkezterakoan zaintzaileen gaitasun areagotuz^(14,25,29,37,38,39,40,41,42,43). Gainera, horietako 4 artikulutan asaldura psikologikoak eta portaera asaldurak gaitasun eragin zioten faktore garrantzitsuenak izan ziren ($p < 0.001$), gainontzekoekin alderatuta^(14,25,29,39).

Azpiatal honetan adostasun maila orokorra lortu da, aztertutako bi asaldura moten presentziak gaitasun mailak areagotuz. Emaitzak Storti LB. et al-ek⁽¹³⁾ esandakoarekin batera datoz, sintoma neuropsikiatrikoek zaintzailearen gaitasun inaktu esanguratsua eraginez eta zerikusia handia izanez pazienteak instituzionalizatzeko erabakian.

Asaldura funtzionalak

Azpikategoria hau 8 artikuluz osatuta dago (%47,05-a)^(14,24,25,26,29,38,39,40), zeinetan 3 eskala ezberdin erabili ziren asaldura funtzionalak neurtzeko. Eskala ezberdinen emaitzak haien artean parekatzerakoan kontrobertsia ageri zen, artikulu batzuetan IADL-ak gaitasun soilik eragina izanez. Eskala berdinek alderatzerakoan ordea, adostasun maila orokorra igarri zen.

4 artikulutan DAD eskala erabili zen, lauretan asaldura funtzionalak gaitasun eragiten zioten faktore nagusi bezala identifikatuz, asaldura psikologiko eta jokaera asaldurekin batera^(14,25,29,39). Guztietan DAD-ren puntuaketa jaisterakoan ZBI-ren puntuaketa areagotu ziren, aldaketa estatistikoki esanguratsua izan zelarik ($p = 0.001-0.05$).

Beste 2 artikulutan^(38,40) "Alzheimer's Disease Co-operative Study of Activities of Daily Living Inventory" (ADCS-ADL) gaitasun erabili zen, ADL eta IADL jarduerak burutzeko pazienteen gaitasunak ebaluatzen dituenak. Reed C. et al-en⁽³⁸⁾ 2020-ko kohortezko ikerketan, gaitasun areagotzeak IADL-en puntuaketa baxuekin harreman estua izan zuen. Azken hauek okerragotzea ZBI-ren puntuaketa areagotu zituzten ere Haro JM. et al-en⁽⁴⁰⁾ kohortezko azterlanean ($p < 0.001$).

Bestalde, Liu et al-en⁽²⁴⁾ ikerketa korrelazionalan, ADL-ak ebaluatu ziren soilik, Katz indizea erabiliz. Azken honen mailak txikiak zirenean ZBI-a areagotu zen ($p < 0.01$). Park M. et al-en⁽²⁶⁾

kohortezko ikerketan ordea, IADL-en puntuaketa baxuek ZBI-a handitu zuten ($p < 0.05$), "The Korean Instrumental Activities of Daily Living" (K-IADL) tresna erabiliz.

Gainkarga subjektiboaz gain, objektiboa 3 artikulutan^(14,38,40) ere aztertu zen, hiruretan funtzionaltasunaren okerragotzeak zaintzaileek eskainitako laguntza orduen kopurua areagotuz ($p < 0.001$).

Azpikategoria honetan erabateko adostasuna igarri da, asaldura funtzionalek gainkarga objektiboa eta subjektiboa areagotuz edozein eskala erabilita. Andrekou M. et al-ek⁽⁸⁾, Bielsa ML. et al-ek⁽⁹⁾ eta Zvěřová M. et al-ek⁽¹⁵⁾ ziotenez, funtzionaltasuna okertzeak dependentzia handitzearekin estuki erlazionatuta dago, laguntza beharrak eta gainbegiratze denbora gero eta handiagoak izanez.

Asaldura kognitiboak

Azpikategoria hau 6 artikuluz osatuta dago (%35,29-a), guztietan asaldura kognitiboak MMSE-arekin neurtuz^(14,25,29,39,41,43). Artikuluen laginak Alzheimer fase ezberdinetako pazienteek osatuta zeuden, fase bakoitzeko paziente kopurua aldakorra izanez ikerketetan zehar. Bestalde, laginak zabalak izan ziren, artikuluei fidagarritasuna emanez. 6 ikerketetan aurretik landutako bi azpikategorietako demenzia faktoreak esanguratsuenak izan ziren^(14,25,29,39,41,43).

Hiru artikulutan^(25,39,41) MMSE-ak ez zuen ZBI-an eraginik suposatu ($p = 0.329-0.753$) aurreko azpikategorietan landutako faktoreekin alderatzerakoan. Sousa MFB. et al-en⁽⁴³⁾ azterlan korrelazionalan ordea, desadostasuna ageri da. Ikerketa honetan Brasileko ($n=128$), eta Espainiako ($n=146$) zaintzaileak alderatu ziren, bi laginei eragiten zieten faktore esanguratsuenak identifikatzeko asmoz. Brasileko laginan MMSE-ren puntuaketa baxuen eta gainkarga mailen arteko lotura topatu zen eta ($p = 0.031$), Espainiakoan ikusi ez zena ($p = 0.781$). Deigarria da Brasileko lagineko pazienteek Espainiakoek baino MMSE-ren puntuaketa altuagoak zituztela (19.1 puntu). Kontrobertsia hau gaixotasunaren larritasun mailarekin zerikusia izan dezake, kognizio funtzioa hobea izan ahala pazienteak zorrotzagoak eta errepikakorragoak izan daitezkeelako haien kognizio gaitasunak direla eta, zaintzailearen gainkarga handituz. Azken hau Garre J. et al-en⁽²⁹⁾ ikerketan ikusi zen ere, gainkarga areagotuz ($p < 0.05$) MMSE-an 20 puntu baino gehiago eskuratzen zituzten pazienteetan.

Bestalde, Conde JL. et al-en⁽¹⁴⁾ 2014-ko kohortezko ikerketan, MMSE-ren puntuaketa baxuek ZBI-arenak areagotu zituzten ($p = 0.047$). Kontuan hartzekoa da laginaren erdia galdu zela ikerketan zehar, MMSE-an eragina izan ahalez.

Laburbilduz, asaldura kognitiboek ez zuten gainkargan asaldura funtzionalek, psikologikoak eta portaera asaldurak bezain eragin handirik suposatu^(14,25,29,39,41,43). Bestalde, azpikategoria honetan desadostasuna ageri da. Alde batetik, 4 artikulutan MMSE-ak ez zuen ZBI-n eraginik izan^(25,39,41,43). Bestetik, 3 artikulutan MMSE-ak ZBI-an eragina izan zuen^(14,29,43), horietako batean kognizioaren narriadurak gainkarga areagotuz⁽¹⁴⁾. MMSE-aren maila baxuek ZBI-puntuaketa areagotuko dituztela logikoa dirudien arren, bi artikulutan^(29,43) kontrobertsia ageri da, MMSE-ren puntuaketa altuak gainkarga mailak areagotuz. Beraz, etorkizunean interesgarria izango litzateke

pazienteak Alzheimer fasearen arabera sailkatzea kopuru berdineko taldeak sortuz, kognizioa eta zaintzaileen gainkarga taldeka ebaluatzeko eta ezberdintasunak aztertzeko.

Gaixotasunaren larritasun maila

Azpikategoria honetan 3 artikulua (%17,64-a) erabili ziren^(26,37,40), guztietan gaixotasunaren progresioak ZBI-ren puntuaketak areagotuz ($p < 0.001$). Hortaz, eztabaidarik ez dagoela izan daiteke. Haro JM. et al-en⁽⁴⁰⁾ ikerketan gainkarga objektiboa ere erlazionatu zen gaixotasunaren larritasunarekin, zaintzean emandako denbora handiagoa izanez faseak aurrera egiterakoan ($p < 0.001$).

Emaitzak Andreakou M. et al-ek⁽⁸⁾ eta Richardson TJ. et al-ek⁽¹⁸⁾ esandakoarekin batera datoz. Gaixotasunaren progresioaren ondoriozko menpekotasuna areagotzerakoan, gaixoen beharrak eta gainbegiratze denbora hazten dira, zaintza gero eta zorrotzagoa eta estresagarriagoa bihurtuz^(8,18).

Zaintzailearekin lotutako faktoreak

Hurrengo kategorian zaintzailearekin erlazionatutako faktoreak aztertu dira, 4 azpikategoria sortuz: zaintzaileen ezaugarri soziodemografikoak, pazientearekiko senidetasun mota, gaixotasunarekiko dituzten jarrerak eta zaintzailearen osasun mentala.

Ezaugarri soziodemografikoak

Azpikategoria honetan 8 artikulua (%47,05-a) erabili ziren zaintzaileen generoa eta adina ezaugarri soziodemografikoak lantzeko, bi hauek gainkargan zuten eragina aztertuz^(14,26,29,37,40,41,43,44).

5 artikuluk emakumezko generoa eta gainkarga areagotzearen arteko erlazioa identifikatu zuten ($p = 0.001-0.025$)^(26,29,37,43,44). Bost azterlanen laginak zabalak izan ziren, eta emakumeen parte-hartzea %62-78 bitartekoa izan zen. Aitzitik, Sousa MFB. et al-en⁽⁴³⁾ ikerketan Brasileko laginan soilik hauteman zen lotura hau, Espainiakoan aurkitu ez zelarik. Azken hau baliteke izatea Hego Amerikan emakumeek rol garrantzitsua betetzen dutelako familiako zaintzan. Espainian ordea, gizonezkoen partaidetza haziz doa. Bestalde, 2 artikuluk ez zituzten generoaren eta gainkargaren arteko aldaketa esanguratsurik topatu ($p = 0.763-0.95$)^(14,41).

Generoari dagokionez kontrobertsia ageri da. Bitan generoak ez zuen gainkargan aldaketa esanguratsurik suposatu ikerketa horietan aztertu ziren bestelako faktoreekin alderatuta^(14,41). Bestalde, 5 artikulutan^(26,29,37,43,44) emakumezko generoaren eta gainkarga handitzearen arteko lotura identifikatu zen, Bielsa ML. et al-ek⁽⁹⁾ eta Richardson TJ. et al-ek⁽¹⁸⁾ deskribatutako zaintzailearen ohiko profilararekin batera datorrena. Emakumezko generoa zaintze-rolari atxikita egon da historian zehar, gaur egun hainbat kulturetan berdin mantenduz, Hego Amerikako eta Asiako kasuetan bezala, zeinetan emakumeek paper garrantzitsua betetzen jarraitzen dute senideen etxeko zaintzan.

Adinari dagokionez, 4 artikulutan zaintzaileen adina murrizterakoan gainkarga handitzen zela aitortu zen ($p = 0.001-0.003$)^(29,37,40,43). Azterlanen laginak zabalak izan ziren, zaintzaileen taldeak ezkontideez eta seme-alabez osatuta egon ziren eta batz besteko adina 62,7 urtekoa izan zen.

Sousa MFB. et al-ek⁽⁴³⁾ berriz, Espainiako laginean bakarrik hauteman zuten lotura hau, Brasileko laginean ikusi ez zena, generoa garrantzia handiagoa izan zuelarik. Bestalde, 3 artikuluk ez zituzten adinaren eta gainkargaren arteko lotura esanguratsurik topatu ($p=0.19-0.817$)^(14,26,41).

Adinarekin ere kontrobertsia ageri da. 3 artikulutan^(14,26,41) adinak ez zuen gainkargan aldaketa esanguratsurik suposatuta bestelako faktoreekin alderatuta. Gainontzeko 4 artikulutan^(29,37,40,43) zaintzaileen adina murrizterakoan gainkarga areagotu zen. Baliteke adina senidetasun motekin erlazioa izatea. Izan ere, erabilitako ikerketetako laginak ezkontideez eta seme-alabez osatuta egon ziren, adin talderik txikiena seme-alabena izanez. Hau batera etorriko litzateke Bielsa ML. et al-ek⁽⁹⁾ eta Richardson TJ. et al-ek⁽¹⁸⁾ esandakoarekin, zaintzailearen ohiko profila 45-55 urte bitarteko alabarena zen eta.

Pazientearekiko senidetasun mota

4 artikulutan (%23,52-a) senidetasunaren araberako gainkarga maila aztertu zen^(25,26,37,41). Hasteko, Reed C. et al-ek⁽³⁷⁾ 2014-an European burututako kohortezko ikerketan, zaintzaileak ziren ezkontideen (n=985) eta seme-alaben (n=405) arteko ezberdintasunak eta gainkarga aztertu ziren. Eraitzen arabera, seme-alabek gainkarga mailak altuagoak pairatu zituzten ($p<0.001$). Pazientearekin bizitzeak, paziente hiriari bizitzeak eta pazienteak azken 3 hilabetean erorketa bat izateak seme-alaben taldeari eragiten zieten beste faktore batzuk izan ziren ($p<0.001$). Ezkontideen taldean ordea, emakumea izatea, adina murriztea eta pazientearen hezkuntza maila altua gainkarga areagotzen zuten faktoreak bezala identifikatu ziren ($p<0.001$).

Conde JL. et al-en⁽²⁵⁾ 2010-eko ikerketa korrelazionalak helburu berdina izan zuen, zeinetan gainkarga mailak handiagoak izan ziren ere seme-alabengan ($p<0.05$). Pazientearekiko elkarbizitza ($p<0.001$), zaintzaile bakarria izatea ($p<0.01$) eta osasun mental pobrea izatea ($p<0.001$) seme-alaben taldeari (n=139) gehien eragin zioten faktoreak izan ziren. Ezkontideen taldean (n=112) ordea, demenzia faktoreek gainkarga areagotu zuten, adibidez: portaera arazoak ($p<0.01$) eta IADL-ak egiteko erabilitako denbora ($p<0.001$).

Bestalde, Asian egindako bi azterlanetan^(26,41), ezkontideek gainerako senitartekoek baino gainkarga gehiago pairatu zuten ($p<0.001$). Ikerketen laginak zabalak izan ziren, eta 1. graduko senitartekoak ez ziren zaintzaile familiarak ere barneratu ziren.

Lehenengo bi ikerketan^(25,37) gainkarga mailak seme-alabengan altuagoak izatea haien eguneroko bizimodua etetearekin eta egoera maneiatzeko zailtasunekin erlazionatu daiteke, talde honi eragiten zioten faktoreak bezala (elkarbizitza, zaintzaile bakarria eta osasun mental pobrea izatea). Erorketa bat izateak suposatzen duen pazientearen dependentzia areagotzearekin lotu daiteke, zaintze-denbora handituz eta seme-alaben gainerako betebeharrak egiteko denbora murriztuz. Ezkontideak ordea, pazientearekin elkarbizitzerakoan, gaixotasunaren larritasuna areagotzen den heinean bizimodu berrira pixkanaka egokituz doaz. Dena den, demenzia faktoreek inpaktua dute talde honetan, elkarbizitzerakoan ezkontideek gaixoaren beharrak etengabe asetzeko eta gainbegiratzeko erantzukizuna eskuratzen dute eta,

gainkarga areagotuz. Honekin lotuta, frustrazioa sor daiteke ezkontideengan gaixoak eguneroko jarduerak betetzeko ezintasuna ikusterakoan, bereziki pazienteen hezkuntza maila altua denean.

Azpikategoria honetan sortutako kontrobertsia kulturagatik izan daiteke. Lehenengo bi ikerketak^(25,37) Europan burutu ziren eta azken biak^(26,41) Asian, gaixoak artatzeko ohiturak eta rolak ezberdinak izanez. Asian zaintze modu tradizionala jarraitu ohi da, gaixoa familiakoek zainduz, zeinetan ezkontideek eta bereziki emazteak, paper garrantzitsua dute.

Gaixotasunarekiko jarrerak

4 artikuluk (%23,53-a) gainkargari eragin zioten zaintzaileen gaixotasunarekiko jarrerak aztertu zituzten^(25,44,45,46). 2 artikuluk jarrerak negatiboak aztertu zituzten^(44,45). Zawadzki L. et al-en⁽⁴⁵⁾ ikerketan, ZBI-ren erlaziorik esanguratsuenaren gizarte-murritzapenarekin izan zen ($p<0.001$), distantzia sozialak mantentzearekin eta besteen izatea ukatzearekin lotuta zegoena. Autoritarismoa ere ZBI-rekin lotu zen, baina neurri txikiagoan ($p<0.01$). Hau da, zaintzaileak pazientearen giza gaitasunak gisa zenbat eta gutxiago onartzerakoan, orduan eta handiagoa zen jasaten zuten gainkarga.

Bestalde, Werner P. et al-en⁽⁴⁴⁾ ikerketan seme-alaba zaintzaileek zeukaten gaixotasunarekiko estigma aztertu zen. Eraitzen arabera, estigmaren dimentsioen aldagai guztiek gainkargaren aurreikuspena areagotu zuten ($p<0.001$). Estigma familiarren barnean, zaintzailearen dimentsioak gainzaman eraginik nabarmena izan zuten, honetan lotsaren eta zainketetan parte-hartzearen murrizketaren aldagaiak garrantzitsuenak izanez ($p<0.001$). Honen arabera, gaixotzasunarekiko erlazioetatik estigmatizatuak izatearen pertzepzioek zaintzaileen zaintze-espereientzia negatiboak areagotzen zituztela aitortu zen.

Jarrera positiboak beste bi artikuluetan aztertu ziren^(27,46). Monin JK. et al-en⁽⁴⁶⁾ ikerketan, pazienteen eta zaintzaileen maitasun errukiorrak gainkarga maila txikiagoekin eta zaintze emaitza positiboagoekin lotu zen ($p<0.01$), zaintzaile rolaerako asebetetze gehiago sentituz. Bestalde, Hodge DR. et al-en⁽²⁷⁾ azterlanean, gainkarga zuzenki erlazioan izan zen zaintzearen alderdi positiboekin eta espiritualitatearekin ($p<0.05$), bi hauen mailak altuagoak zirenean gainkarga txikiagoa izanez. Gainera, espiritualitateak neurri batean arindu zituen gainkargak zaintzearen alderdi positiboetan eragiten zituen efektu negatiboak ($p<0.10$).

Azterlan korrelazional hauetan ^(25,44,45,46) identifikatu diren gaixotasunarekiko jarrerak gainkarga aurreikuspeneko faktoreak bezala interpretatu daitezke, edo baita gaixotasunarekiko aurre egite estrategiak bezala ere; batzuk eraginkorrak izanez gainkarga prebenitzeko, baretzeko eta zaintzearen inguruko sentimendu positiboak sortzeko. Beste batzuk eraginkorrak ez direnez, gainkarga areagotzen dute, zaintzailearen rolaerako atsekabea sortuz.

Zaintzailearen osasun mentala

6 artikulutan^(14,24,25,39,40,47) (%35,29-a) osasun mental pobrea izatea gainkarga areagotzearekin lotu zen ($p<0.001$). Zaintzaileek pairatu zituzten sintomarik ohikoenak antsietatearenak eta depresioarenak izan ziren, gainzamaren puntuazio altuagoekin lotu zirenak ($p<0.001$)^(24,25).

Sintoma hauek seme-alaba zaintzaileengan ezkontideengan baino gehiago ematen zirela identifikatu zen bi ikerketetan^(25,47) ($p<0.001$).

Merlo P. et al-ek⁽²⁾, Andreakou M. et al-ek⁽⁸⁾ eta Richardson T.J. et al-ek⁽¹⁸⁾ ziotenez, Alzheimer gaixoen zaintzea egoera zorrotza eta estresagarria izan daiteke zaintzailearentzat, haien osasun mentalean eragina izanez. Aztertutako ikerketetan adostasuna igarri da, osasun mental pobreak gainkarga areagotuz. Hortaz, ezinbestekoa da zaintzaileen osasun mentala babestea sostengua eta interbentzioak eskainiz, gainkarga baretzeko eta ongizatea bermatzeko. Kontuan hartzekoa da senitartekoen artean seme-alabek arrisku-mailarik altuena daukatela, arreta berezia eskaini beharrez.

Testuinguruarekin lotutako faktoreak

Kategoria honetan testuinguruarekin lotutako faktoreak aztertu dira, 3 azpikategoria sortuz: elkarbizitza, sostengu edo laguntza sozialak eta zaintze-denbora.

Elkarbizitza

Elkarbizitza 7 artikulutan (%41,17-a) aipatu zen^(14,25,26,29,40,43,47). 3 ikerketetan^(26,29,43), elkarbizitzak gainkarga areagotu zuen ($p=0.001-0.037$). Gainkarga subjektiboaz gain, Haro J.M. et al-ek⁽⁴⁰⁾ objektiboa ere areagotzen zuela aitortu zuten ($p<0.001$).

Bestalde, 3 azterlanetan^(14,25,47) elkarbizitza eta senidetasunak batera aztertu ziren, gainkargan zuten eragina ebaluatuz. Horretarako pazientearekin bizi ziren ezkontideak, seme-alabak eta pazientearekin bizi ez ziren seme-alabak alderatu zituzten. Hiruretan pazientearekin bizi ziren seme-alabek gainkarga maila altuenak pairatu zituzten ($p<0.001$). Pazientearekin bizi ez ziren seme-alabek gainkarga maila baxuenak pairatu zituzten eta ezkontideek berriz, tarteko gainzama mailak, ikerketetan zehar areagotuz joan zirenak ($p<0.001$). Pazientearekin elkarbizitzen ziren senideak zaintzaile bakarrak izan ohi ziren eta kanpoko baliabide gutxiago erabili zituzten. Pazientearekin bizi ez ziren seme-alabek ordea, kanpo baliabide gehiago erabili zituzten^(14,25,47).

Horrez gain, 2 azterlanetan^(25,47) ZBI-ren barne-analisia burutu zen, zeinetan galdetegiaren egiturari dagokionez 5 faktore identifikatu ziren: gainkarga sozialak, estres psikologikoa, erruduntasun sentimenduak, presio emozionala eta mendekotasun-harremana. Elkarbizitzen ziren seme-alabek gainkarga handiagoa aurkeztu zuten gainzama sozialean ($p<0.05$) eta estres psikologikoan ($p<0.01$). Erruduntasun sentimenduak nabariagoak izan ziren pazienteekin bizi ez ziren seme-alabengan ($p<0.001$). Presio emozionalaren faktorea ere handiagoa izan zen elkarbizitzen ziren taldeetan ($p<0.001$ ezkontideak; $p=0.037$ seme-alabak). Pazientearekiko dependentzia harremanari dagokionez, handiagoa izan zen ezkontideen taldean eta txikiagoa bakarrik bizi ziren seme-alabengan^(25,47).

Azpikategoria honetan erabateko adostasuna dago, elkarbizitzak gainkarga areagotuz, honek pazientearen beharrei etengabe erantzutea dakar eta. Senidetasunaren efektua aztertzerakoan adostasuna ere igarri da, elkarbizitzen ziren seme-alabek gainkarga mailarik altuenak pairatuz, Bielsa M.L. et al-ek⁽⁹⁾ eta Richardson T.J. et al-ek⁽¹⁸⁾ deskribatutako zaintzailearen ohiko profilarrekin batera etorri. Arrazoia haien bizitzetan suposatzen duen bizimodu aldaketa izan

